

**Galdera, ezgaitasunak dituzten pertsonen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdiaren ebazpenari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Egaña Descarga andreak ezgaitasunak dituzten pertsonen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdiaren ebazpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko ekainaren 13ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du ezgaituekin lan egiten duten elkarreentzako dirulaguntzen ordainketari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

1. eta 2. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak ebatzi al du dirulaguntzen deialdia? Ebatzi baldin badu, ebazpenaren eta haren eranskin guztien kopia bat nahi dut. Ebazpena oraindik eman ez bada, zer arrazoi

daude berandutzeko, batik bat kontuan hartuta deialdiaren 9.2. oinarrian xedatutakoa?

Pertsona ezgaituen arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateentzako 2005. urterako dirulaguntzen deialdia abenduaren 24ko 190/2004 Foru Aginduaren bidez onetsi zen –2004ko abenduaren 31ko 157. NAO n argitaratu zen–; hasierako kreditua 3.000.497 eurokoa da, eta hari, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren maiatzaren 16ko 68/2005 Foru Aginduaren bitartez –2005eko maiatzaren 27ko 63. NAO n argitaratu zen–, 238.000 euro gehitu zitzaizkion. Guztira, horrenbestez, 3.238.497 euroko kopurura iritsi zen deialdirako.

Behin foru agindu hori argitaratu zenean, dirulaguntzetarako deialdia erabaki zen, hain zuzen ere Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 3ko 2370/2005 Ebazpenaren bitartez; haren bitartez, 28 elkarteren 95 programetarako dirulaguntzak

eman dira, guztira 3.238.486,84 euro egiten dutenak.

Ekainaren 8an, entitate guztiek 60.000 euroa arteko lehen ordainketa bat jaso zuten. Horrenbestez, kopuru hori baino dirulaguntza txikiagoa jaso behar zuten guztiek, hain zuzen ere entitate horietako gehienek, dirulaguntzaren ehuneko ehun jaso zuten. Gainerakoak, 60.000 euro baino diru kopuru handiagoa jaso behar zutenak, aginduzkoa den bezala, lehen ordainketa hori justifikatzen doazen neurrian, kopuru osoa jaso arteko ordainketak jasotzen joanen dira.

Gaur egun, 1.769.978,28 euro ordaindurik daude, hau da, dirulaguntza osoaren ehuneko 55. 1.468.508,55 euro geratzen dira ordaintzeko, dirulaguntzako kopuru osoaren ehuneko 45; kopuru hori aurreko lerrokadan adierazitako moduan ordainduko da.

Ordaintzeko gelditu den kopurua 60.000 euro baino gehiago jasoko dituzten zortzi entitateri emaniko dirulaguntzei dagokie. Hauexek dira:

ENTITATEA	Emandakoa	Ordaindutakoa	Ordaindutakoa/ Emandakoa, ehunekotan	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena/ Emandakoa, ehunekotan
ADACEN - 2005eko DIRULAGUNTZA	152.730,04	60.000,00	% 39	92.730,04	% 61
ANASAPS - 2005eko DIRULAGUNTZA	659.743,51	300000	% 45	359.743,51	% 55
ANFAS - 2005eko DIRULAGUNTZA	579.388,92	300000	% 52	279.388,92	% 48
ATENA - 2005eko DIRULAGUNTZA	61.872,90	60.000,00	% 97	1.872,90	% 3
COORDI.DISMI.FÍSICOS - 2005eko DIRULAGUNTZA	65.978,85	60.000,00	% 91	5.978,85	% 9
ELKARKIDE - 2005eko DIRULAGUNTZA	757.402,44	360000	% 48	397.402,44	% 52
HOGAR ZOE - 2005eko DIRULAGUNTZA	90.172,70	60.000,00	% 67	30.172,70	% 33
JAVIER EGOITZA - 2005eko DIRULAGUNTZA	541.219,19	240000	% 44	301.219,19	% 56
GUZTIRA	2.908.508,55	1.440.000,00	% 50	1.468.508,55	% 50

Eskatutako ebazpenaren kopia eranskin gisa jarri dugu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko ekainaren 28an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti